Tribuna abierta

# Qué será de nuestro futuro



POR Euge Arrizabalaga Olaizola

NO es que falten respuestas. Lo difícil, a estas alturas, es dar con las preguntas adecuadas en un mundo que parece haber perdido la medida del sentido común.

Ahí tenemos a Trump actuando en Irán como si la estabilidad mundial fuese un *reality show* más. Y mientras este personaje dirige el mundo, medio planeta contiene la respiración por el suministro de petróleo, la inflación, el futuro y el bienestar... dependiente –todo ello– de Ormuz. Y no es el único que pisotea la racionalidad, los derechos humanos o el multilateralismo. Le acompañan Netanyahu, poniendo patas arriba el Oriente Medio, o Putin machacando Ucrania.

Las consecuencias no las pagan quienes juegan al Risk geopolítico desde despachos blindados. Las pagan quienes reciben las bombas y, en derivada, las familias normales. Todas a la vez. En todas partes.

Y a esta triste fiesta del desorden mundial hay que añadirle el cambio climático, la crisis energética, el auge de las extremas derechas y de regímenes autoritarios de todo tipo, los movimientos migratorios y las reacciones xenófobas, la vivienda, la polarización política, la desinformación industrializada, o la inteligencia artificial, presentada simultáneamente como el futuro y como la probable sustituta de media humanidad.

Vivimos tiempos peligrosos. Lo único seguro es que no hay nada seguro y es lógico que nos surjan preguntas: ¿a dónde nos lleva todo esto?, ¿qué verán nuestros hijos e hijas?, ¿qué vejez nos tocará? Preguntas sencillas con respuestas inciertas.

Precisamente por todo eso, este no es tiempo de vendedores de humo ni de siglas que prometen soluciones mágicas a problemas “colosales”, sino de compromiso y honestidad. Es tiempo de hablar claro y de decirnos –y decir– la verdad. Especialmente, desde la política.

**CERTEZAS RAZONABLES** Antes que nada, reconocer que nadie tiene todas las respuestas. La política hoy es gestionar la incertidumbre. Quien vende pócimas mágicas intenta colar humo. La política que hoy se necesita es la que puede presentar certezas razonables sobre lo que sí está en nuestras manos. Y el PNV ofrece, al menos, cinco.

1. Primera certidumbre: Un posicionamiento claro a favor del derecho internacional y contra toda guerra unilateral e ilegal. Esto conlleva no contemporizar con la extrema derecha ni con autoritarismos de ningún tipo, ni hacer diferencias entre víctimas o entre sátrapas –todavía hay quien, aquí, se pone de perfil al hablar de Putin–. No compartimos la idea de que se ha acabado el orden internacional. Está en crisis, es verdad, pero no tiene alternativa. La ONU o la Unión Europea (UE) pueden provocar frustración pero también son esperanza, porque son indispensables para reconstruir, con las reformas necesarias, un marco internacional democrático. La alternativa es el caos.

2. Segunda certidumbre: el refuerzo de la soberanía nacional vasca. El mundo es cada vez más interdependiente y, en cierta medida, el multilateralismo que defendemos requiere compartir soberanía. Pero para poder compartir soberanía hay que tener soberanía que poder compartir. Y para ser parte de las decisiones, una nación como Euskadi necesita estructuras de Estado. La prosperidad de nuestro país exige poder efectivo de decisión. El modelo progresivo de construcción nacional del PNV ha llevado a Euskadi a los estándares más altos de calidad de vida en el mundo actual. Debemos seguir avanzando con determinación sin renunciar nunca a la soberanía plena. Lo seguiremos haciendo con realismo y ambición. Con europeísmo y multilateralismo. Con paso firme, seguro y viable.

> Este no es tiempo de vendedores de humo ni de siglas que prometen soluciones mágicas a problemas “colosales”, sino de compromiso y honestidad

3. Tercera certidumbre: la premisa irrenunciable de la cohesión social. El PNV no entiende el progreso político y nacional de Euskadi sin igualdad. Nuestras políticas de protección social están a la cabeza en el Estado y Europa. Gipuzkoa presenta la tasa de desigualdad más baja de la UE junto a Eslovaquia, fruto de nuestra determinación a favor de la justicia social. Vamos a proteger lo conseguido y ampliarlo en lo posible, bajo la premisa de la responsabilidad con las generaciones futuras, porque las personas y sus problemas son nuestra prioridad. Y porque mejorar en vivienda, salud, seguridad y cuidados es fortalecer Euskadi, no solo como sociedad, también como nación.

4. Cuarta certidumbre: la prioridad del empleo y la economía. No hay prosperidad social sin progreso económico e industrial. Euskadi lo aprendió enfrentándose a crisis durísimas desde su institucionalización. Hoy, el peso de la industria vasca es del 24% del PIB frente al 18% en Europa. El paro en Gipuzkoa en 2025 fue del 5,1%, menos de la mitad que el del Estado, siendo la media en la UE del 6%. Vamos a seguir mejorando el modelo que nos ha traído hasta aquí. Inno-



vación, internacionalización, colaboración público-privada, arraigo industrial, tecnología avanzada y sectores de alto valor. Pequeñas y medianas empresas, parques y polígonos industriales. Formación Profesional y Universidad. Puede sonar menos épico que algunos discursos que se oyen por ahí, pero tiene una virtud: funciona.
5. Quinta certidumbre: la insistencia en la mejora continua. El inconformismo como método. No instalarse en la autocomplacencia ni en el relato triunfalista, sino mejorar constantemente, corregir, adaptarse y avanzar.
Para el PNV, la construcción social y la construcción nacional forman parte del mismo proyecto. Progresar políticamente como nación nos da las herramientas para abordar las incertidumbres y los grandes retos que se nos plantean. Una Euskadi más fuerte políticamente es también una Euskadi socialmente más preparada para afrontar un mundo que se presenta hostil.
Así hemos llegado hasta aquí. No con soluciones mágicas ni salvadores milagreros, sino trabajando, gestionando y mejorando. Estas son las certidumbres que ofrece el PNV para navegar las turbulencias que nos amenazan: seguridad en la gestión, ambición política y una trayectoria con resultados reales. Y en tiempos turbulentos esta es la mayor certidumbre posible: saber distinguir entre quien solo sabe hablar de "retos colosales" y "puntos de inflexión" y quien lleva tiempo demostrando compromiso y capacidad de construir un futuro mejor.

*Burukide del EBB del PNV*




## Kolaborazioa



# Bizkaiko museoak. Bisita itzazu. Bisita zaitez

Leixuri Arrizabalaga Arruza



URTERIK urte, Museoen Nazioarteko Egunak gure kultura eta oroimen kolektiboa jagoten daben espazio horreetan gelditu eta arreta handiagoz begiratzera gonbidatzen gaitu. Museoen Nazioarteko Kontseiluak (ICOM) bultzatutako ospakizuna da, 1977tik maiatzaren 18an egiten dana.
Aurten, nazinoarteko leloa «museoak mundu zatitu bat alkartuz» da, Bizkaiaren ikuspegia indartzen eta laguntzen dauen esparrua, tokiko ekintza mundu osoko milaka museok parte hartzen daben mobilizazio globalagaz lerrokatuz.
Bizkaian, ospakizun hau efemeride kultural batetik haratago doa: gizarte lez nor garen eta kulturak gure nortasun partekatuaren eraikuntzan zer leku dauen berresteko aukera bihurtzen da.
Egun horren bueltan, Bizkaiko Foru Aldundiak beste ekimen batzuk bultzatu dauz lurraldeko berrogei museo baino gehiagogaz batera, helburu argi bategaz: museoak herritarrei parajetzea eta Bizkaiko kultura-eskaintza zabal eta askotakoari balioa emotea. Erakusketek, jarduera bereziek, parte hartzeko proposamenek eta doako sarbide-jardunaldiek espazio horreek gizarteari gehiago zabaltzeko eta pertsonekiko lotura indartzeko pentsatutako programazioa osotuko dabe.
Museoak ez direlako asagoko lekuak, ezta espezialistentzat bakarrik be. Leku isilak izan arren, espazio biziak dira. Iraganak eta orainak berba egiten daben lekuak, izan gintzezanaren oroimena gordetzen dan lekuak, eta historian, hizkuntzan eta kulturan bere burua ezagutzen jarraitu nahi dauen komunitate baten etorkizuna proiektatzen direzan lekuak.
Komunitate handi oro zeharkatzen dauen ideia bat dago: bere oroimena ahazten dauen herri batek bere burua aitortzeari uzteko arriskua dauko. Horregaitik museoak ondarearen edukiontziak baino askoz gehiago dira; gizarteak bere buruagaz berba egiten daben guneak dira. Gure ustez, identidadea ez da bakarrik heredatzen: jagon, interpretatu eta transmitidu be egiten da.
Aurten aukeratutako leloak ideia hori egoki laburbiltzen dau: "Bizkaiko Museoak. Bisita itzazu. Bisita zaitez."
Bizkaia, kultura-lurralde dinamikoa, gaur egun erreferente bihurtu dana museoen barrikuntzan eta nazinoarteko kulturatrukean. Tradizinoa eta barrikuntza uztartzen dauzan lurraldea da.
Horregaitik datorren bagilean Bizkaiak - EMYA- Europako Museorik onenaren (European Museum of the Year Award) sarien batzarra eta sari banaketa ekitaldia hartuko dauz. Une ezin hobea izango da Bizkaia nazinoarteko museo sarea mapan jartzeko, munduari eskaintzeko dogun guztia erakusteko. Bizkaian dagoen museoen eskaintza anitza eta aberatsa erakusteko aukera.
Gure museoek asko dabelako erakusteko. Izan be, museo batean sartzen garenean ez dogu objektuak, dokumentuak edo pieza artistikoak bakarrik ikusten. Geure buruari be begiratzen deutsagu. Gaur egun bizi garen lurraldea eraiki eben belaunaldien aztarnekaz egiten dogu topo; gure nortasun kolektiboari forma emon deutsean esfortzu, eraldaketa eta adierazpen kulturalekaz.
Jose Miguel Barandiaranek esan zauen bezala, "bere oroimena ahazten dauen herri batek nortasuna galtzen dau". Baina beste hau be gehitu leiteke: "Bere historia ezagutzen eta baloratzen dauena hobeto prestatuta dago bere etorkizuna eraikitzeko".
Bizkaiko museo bat bisitatzea denboran zehar ezagutzea da. Bere aretoen artean, izan gintzezanaren oroimena eta bere berezitasuna gordetzen eta transmititzen jakin dauen herri baten aztarna bizia bizi dira. Erakusketa, artxibo eta kontakizun bakotxak gure sustraiekaz lotzen gaitu eta, aldi berean, oraina hobeto ulertzen lagunduten deusku.
Horregaitik, museoak defendatzea gizartea ulertzeko modu bat defendatzea be bada. Bere ondarea baloratzen dauen gizartea, bere memoria babesten dauena eta kultura ondasun komun lez ulertzen dauena, eta ez luxu osagarri modura.
Museoek gure kulturarekiko lotura indartzen dabe, gure historia duintzen dabe eta Bizkaiko memoria kolektiboa etorkizunerantz proiektatzen dabe.
Informazioaren berehalakotasunak eta kontsumo azkarrak markatutako denboran, museoek gero eta beharrezkoagoa dan zerbait eskaintzen dabe: testuingurua, hausnarketa eta kide izatearen sentimendua. Munduari ikuspegi askotatik begiratzeko eta gure identidadea ez dala estatikoa ulertzeko aukera emoten deuskue, baizik eta eraikuntza kolektiboa eta dinamikoa.
Funtsezkoa da museoak iraganekoak bakarrik direlako ideiagaz haustea. Museoek orainaz hitz egiten dabe. Alkartzeko, ikasteko eta belaunaldien arteko elkarrizketarako guneak dira. Herritar guztiei zabaldutako lekuak, komunitatea sortzeko eta nor garen eta nor izan gura dogun jakiteko begirada barriak bizteko gai direnak.
Alde horretatik, Museoen Nazioarteko Eguna aukera ederra da kulturaren eta gizartearen arteko konpromiso hori indartzen jarraitzeko. Gure museoetara bisitari moduan ez eze, historia komun baten parte modura be parajetzeko gonbidapena.
Izan be, Bizkaiko museoak ezagutzen doguzanean, ez dogu gure ondarea bakarrik deskubritzen: belaunaldiak, istorioak eta mundua ulertzeko moduak lotzen dauzan hari ikusezina be deskubritzen dogu. Areto bakotxean, garenaren zati bat bizi da, baita oraindik izan gaitezkeenerako inspirazio bat be.
Beharbada hor dago museoen benetako indarra: memoria eta etorkizuna lotzeko gaitasuna. Bere kultura jagoten dauen gizartea bere burua errespetatzen dauen eta konfiantzaz aurrera begiratzen dauen gizartea dala gogorarazteko.
Museoen Nazioarteko Egun hau, beraz, ospakizun kultural bat baino askoz gehiago da. Gure historiagaz, nortasunagaz eta iraganagaz harro dagoan, orainagaz konprometituta dagoan eta etorkizunera zabalik dagoan Bizkaiagaz barriz topo egiteko gonbidapena da.
Izan be, leku batzuk ez dira bakarrik bisitatzen: sentidu, partekatu eta gugan geratzen dira. Eta Bizkaiko museoak dira, zalantza barik, horreetako bat. ●

*Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatua*